



ATZERRIAN IGORRITAKO DOKUMENTU AKADEMIKOAK LEGEZTATZEKO PROZESUA

1. Zer da legeztatze-prozesua?

Dokumentuak legeztatzea izapide diplomatiko bat da, jatorrizko herrialde batean jaulkitako dokumentuak aitortzeko eta helmugako herrialdean baliozkoak izateko egin behar dena. Legeztatze horrek aukera ematen du egiaztatzeko ziurtagirian ageri den erakundea, goi-mailako hezkuntzako atzerriko sistema baten esparruan lortutako titulu akademikoa eta programa akademikoa badirela.

Dokumentuak legeztatzeko eskumena Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioari dagokio.

2. Nork egin behar du legeztatze-prozesua?

Europako Zirkulazio Askeko Akordioa sinatu duten herrialdeetako ez den unibertsitate batek emandako hirugarren herrialde bateko goi-mailako hezkuntzaren esparruan atzerriko unibertsitate-titulua lortu duen edozein pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegoan homologazioa edo baliokidetasun-aitorpena eskatu badu.

- Jatorrizko herrialdea Schengen eremuari edo Europar Batasuneko Zirkulazio Askeko Akordioari atxikita badago, ez da beharrezkoa dokumentu publikoak legeztatzea. Esteka honetan herrialde horien zerrenda agertzen da: https://european-union.europa.eu/principles-countries-history/eu-countries_es
- Jatorrizko herrialdea Hagako Hitzarmenari atxikita badago, Dokumentuak Legeztatzeko Sistema Bakarrari ekingo zaio, "apostilla prozeduraren" bidez. Dokumentuaren legezkotasuna baieستeko (ez edukia), dokumentu publiko baten gainean –edo haren luzapen baten gainean– apostilla edo ohar bat jarriko da, herrialde sinatzaile batean emandako dokumentu publikoen sinaduraren benetakotasuna ziurtatzeko. Esteka honetan agertzen da 1961eko urriaren 5eko Hagako Hitzarmena sinatu zuten estatuen zerrenda: https://www.mjusticia.gob.es/es/Ciudadano/TramitesGestiones/Documents/ESTADOS_FIRMANTES_CONVENIO_HAYA.pdf

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu esteka honetan:

<https://www.exteriores.gob.es/es/ServiciosAlCiudadano/Paginas/Legalizacion-y-apostilla.aspx>

- Jatorrizko herrialdea ez badago Schengen edo Europar Batasuneko Zirkulazio Askeko Akordioaren babespean, ezta Hagako Hitzarmenaren babespean ere, dokumentu arruntak bide diplomatikotik legeztatuko dira, bai atzerrian –Espainiak kanpoan dituen kontsuletxeetako bulegoetan–, bai Espainian –Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioan–. Legeztatze-prozesuak bi fase ditu:
 - Atzerrian legeztatzea: dokumentua eman duen atzerriko herrialdeko Kanpo Arazoetako Ministerioaren mendeko kontsuletxeak edo enbaxadak egiten du.



- Legalizazioa Espainian: Atzerriko kontsuletxeetako dokumentuak –Espainian akreditatutako atzerriko enbaxada eta kontsulatuek emandakoak– sinadurak aitortzeko akordiorik gabeko herrialdeetarako Legalizazio Zerbitzuan legeztatu beharko dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu esteka honetan:

<https://www.exteriores.gob.es/es/ServiciosAlCiudadano/Paginas/Legalizaciones/Servicio-de-legalizaciones.aspx>

Zerbitzu hori erabili ahal izango da, halaber, Kanpo Arazoetako Ministerioaren mendeko kontsulatu edo enbaxadaren zerbitzua ez duen hirugarren herrialde bateko herritarrak –edo zerbitzua etenda duenak–.

- Jatorrizko herrialdeak Estatuarekin alde biko hitzarmena badu elkarrekiko interesengatik, jatorrizko herrialde bakoitzaren inguruabar zehatzak aztertuko dira.

3. Zein kasutan da beharrezkoa legeztatzea?

Tituluaren eta ikasketa-planaren itzulpena zinpeko itzultzaile eta interprete ofizialen zerrendetan agertzen ez den norbaitek egin badu, beharrezkoa izango da itzulpena legeztatzea titulua eta ikasketa-plana eman diren jatorrizko herrialdeetako bakoitzerako ezarritako legalizazio-sistemaren bidez, baita Schengen eremuari edo Europar Batasuneko Zirkulazio Askeko Akordioari atxikitako herrialdeen kasuan ere, Europako Esparruko zirkulazio askeko akordioek ez baitituzte itzulpen horiek babesten.